

## **Euskal Kanta, heldutasun bidean**

*Euskal kanta heldutasunera iritsi bide da. Azken 12-15 urte hauetan hazkuntza bizia izan du, eta zein emankorra! Ez da egongo euskal herririk jaialdiren bat izan ez duenik. Irrati bidez eta kantarien mugikortasunari esker, Euskal Herriko bazter guztietara iritsi da euskal kanta.*

*Eta kantarekin batera euskal kultur mugimendua. Kanta da, izan ere, mugimendu horren barruan Euskal Herriak izan duen komunikabiderik arinena, zuzenena. Hitz idatzia-  
ren aldean —liburua, prentsa— abantail handia du kantak: denetan ulerterrazena bera da. Hortxe dagoke haren arrakastaren arrazoirik nagusienetako bat. Eta horri esker egin ahal izan du, hein batetan bederen, euskal kultura-  
ren herritartzea.*

*Elkarri lagunduz jo dute aurrera politikak, kulturak, kantak, eta enparauak. Kantaren fenomeno hau ez da berarizko sorkuntza bat edo «generación espontánea» delakoz gertatua izan. 1960 inguru hartan gainerako kultur- eta politik bideak jaio ziren kontzientzia berarekin sortu zen kanta ere. Gorputz hartuz joan ahala erantsi zitzaizkion programak, orduan antolatu ziren taldeak eta kantaldiak. Alor guztietan berdin gertatu da gure artean, eta ezin zitekeen agian bestela izan. Gerra ostea zen, baina gerra hotzaren garaia, politika zanpatzailearen aldia. 1960-1970 hamarraldian, izan ere, dena batera sortzen dela ematen du: politik taldeak, liburuen ugaltzea, aldizkarlen berritzea, ikastola, alfabetatzea, bertsolaritzaren indartzea, herri irratiak, kanta... Militante askoren fruitu da hau denau, herri mugimendu indartsu baten adierazgarri eta eragile.*

Ez zegoen bide eginik. Bidea berak ireki beharrean aurkitu zen kanta ere, nahiz eta Euskal Herriak horren tradizio musikal handia ukan. Izan ere, kanta modu honen mezua, tradizionala ez baino gaur gaurkoa zen, ingurunetik zuzenean jaso, herri burrukari lotua; erreibindikapena zen kanta honen helburua; eta kantaren modua eta lekua aurrekoengandik arras bestelakoak ziren: taldea ez baino gitarradun abeslari soila nagusitu zen; eta areto aurrez prestatuetan ez baino zegoen azpiegituraz baliatuz plaza-ratzen zen, frontoi, eliza, elizpe eta zelai, nonahi. Jendearen bila joan izan da kantaria, jende hori zegoen lekura joan ere. Herrira bertara. Eta herria bereganatu du, ez da zalantzarik. Kantariok, denbora berrietako bertsolari bailiran onhartu zituen publikoak, publiko gazteak bereziki.

Kanta berriaren historiak ere agerl-agerian ditu errepresioaren markak. Kontaezinak dira debekaturiko jaialdiak, dozenaka abestu ezin izan diren letrak. Zentsura eta eragozpenak alde guztietatik. Traba hauetan ezin liteke aipatu gabe utz, kantaldiak muntatzeko behar diren baimenen mekanismo luze eta konplikatuak. Hitzak ahuldu eta herriarekiko kontaktoa erre egin nahi zuen Gobernuak. Eta kontrakoa lortu du.

Eta aurrerantzean zer?

Gure herria bizimolde berritan abiatu nahirik denez, euskal kanta ere bide berri bila hasi beharrean aurkitzen da. Hasia da jadanik. Orain artean, hitzak izan du garrantzia kanta berrian: hitzak erabaki ohi zuen euskal kanta zein zen, mezuaren funtzioan bide zegoen kanta. Musika-ren kaltetan sarri. Hemendik aurrera, kantaren hedadura guztiak hobeki zaindu beharko dira. Esan nahi bait da, hitzak, doinua, interpretazioa eta jendearen aurrekoa. Orain arteko berdinkeria edo uniformismoaren aurka, kantagaiak, kantamotak eta kantaldiak desberdinduz, diferentziatuz, aberastuz joan beharko dute. Herri prozesuan murgildurik, eta hori potentziatzen egon nahi badu. Erresistentzi abesti hutsez ezin gaitzke konforma, abagadune berritan: biziera osoaren adierazgarri behar du kantak, gai ugariagoak kantara ekarriz. Publikoaren aurrerako formula berriak aurkitu behar ditu kantariak: badago eredurik munduan eta gure tradizio herritarrean.